

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

***Elmer* ipuinaren kontaketa Haur Hezkuntzako haurren gaitasun
linguistikoa aztertzeko**

Egilea: Ane Zuazua Aizpuru

Zuzendaria: Mainer Huarte Abasolo

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	4
1.1. Zer da hizkuntza?.....	4
1.2. Hizkuntzaren dimentsioak.....	4
1.2.1. Hizkuntzaren dimentsioen garapena.....	5
1.3. Euskararen jabekuntza.....	6
1.3.1. Izen sintagma.....	6
1.3.2. Aditz sintagma.....	8
1.3.3. Esaldi maila.....	8
1.3.4. Ipuin kontaketa: autonomia.....	8
1.4. Familiaren eta ikastetxearen garrantzia hizkuntzaren garapenean.....	9
2. Metodologia.....	11
3. Lanaren garapena.....	12
3.1. 3 urteko umeak.....	13
3.2. 4 urteko umeak.....	16
3.3. 5 urteko umeak.....	19
4. Datuen interpretazioa.....	23
5. Ondorioak.....	25
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	28

***Elmer* ipuinaren kontaketa Haur Hezkuntzako haurren gaitasun linguistikoa aztertzeko**

Ane Zuazua Aizpuru

UPV/EHU

Lan honetan Haur Hezkuntzako haurren hizkuntzaren jabeak maila ikusteko ikerketa bat egin da. Horretarako, bederatzirener eskatu zitzaizkien Elmerren ipuina birritan birkontatzeko, bi hilabeteko aldearekin. Grabazioen ondoren, haurren ekoizpenak ezaugarri morfosintaktiko ezberdinen arabera aztertu ziren. Azterketa egin ondoren, ekoizpen horiek alderatu egin ziren adinaren arabera (3, 4 eta 5 urte) eta ama hizkuntzaren arabera (euskara, gaztelania eta arabiera).

Euskara, hizkuntzaren jabeak, bigarren hizkuntza, ipuin-kontaketa, autonomia

Este trabajo trata de una investigación para ver el nivel de adquisición del lenguaje que tienen los niños de Educación Infantil. Para ello, se pidió a nueve niños que recontasen el cuento de 'Elmer' dos veces con dos meses de diferencia. Tras las grabaciones, estas se analizaron en base a diferentes características relacionadas con la dimensión morfosintáctica. Después de realizar el análisis, se compararon las diferentes producciones de los niños, ya que estos tenían edades diferentes (3, 4 y 5 años) y, además, sus lenguas maternas también eran diferentes (euskera, castellano y árabe).

Euskera, adquisición del lenguaje, segunda lengua, cuentacuentos, autonomía

This project is about an investigation into the level of language acquisition of children in pre-school education. For this purpose, nine children were asked to retell the story of 'Elmer' twice, two months apart. After the recordings, children's productions were analysed on the basis of different characteristics related to the morphosyntactic dimension. After the analysis, the different productions of the children were compared, as they were of different ages (3, 4 and 5 years old) and their mother languages were also different (Basque, Spanish and Arabic).

Basque, language acquisition, second language, storytelling, autonomy

Sarrera

Ikerlan honen helburua umeen gaitasun komunikatiboa aztertzea eta alderatzea izan da eta, horretarako, *'Elmer'* ipuina erabili da. Hiru, lau eta bost urteko umeek hartu dute parte ikerketa honetan. Adin bakoitzeko hiru ama-hizkuntza ezberdin egon dira: euskara, gaztelania eta arabiera. Ume bakoitzari Elmer ipuina kontatu zaio, eta ondoren, ipuina ereduari jarraituz birkontatzeko eskatu zaio, norberak dakien ipuin bat kontatzea baino errazagoa delakoan (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

Haur bakoitzarekin bi grabaketa egin dira bi hilabeteko tartearekin. Grabaketak egin eta gero, transkribatu egin dira datuen azterketa egin ahal izateko. Ekoizpen horietan identifikatu dira izen sintagma mailan erabiltzen dituzten elementuak, aditz sintagma mailan erabiltzen dituztenak, esaldien konplexutasuna eta ipuina kontatzeko duten autonomia. Ondoren, ume guztien datuak konparatu dira eta, azkenik, Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) euskararen jabekuntzari buruz diotenarekin alderatu egin dira.

Hara hemen lanaren egitura: marko teorikoan, hizkuntzaren eta euskararen jabekuntzaren inguruan hitz egiten da eta, gainera, hizkuntzaren dimentsio ezberdinak nola garatzen diren azaltzen da. Bestetik, umearen testuinguruaren garrantzia azaltzen da. Ondoren, ikerketaren metodologia zein den argitzen da; hau da, parte-hartzaileak zeintzuk diren eta datuak biltzeko prozedura zein den. Hirugarren atalean, datuak deskribatzen dira, horiek laugarren atalean interpretuz eta, bostgarrenean, ondorioak ateraz.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Zer da hizkuntza?

Guibourg-ek (2000) dio hitzezko hizkuntza gizakien arteko komunikazioa ahalbidetzen duen tresna gisa definitzen dela. Jakinaenez, ez da tresna posible bakarra, historian zehar garatutako lengoia ugari baitaude, mezuak transmititzeko eta jasotzeko aukera ematen dutenak. Hala ere, hitzezko hizkuntzak komunikaziorako tresnarik egokiena dela definitzen duten ezaugarri bereziak ditu: eraginkorra da, edozein hizkuntzak dituen hitz ugariak eta horien konbinazio posibleak askotariko objektu eta gertaera mota askori erreferentzia egitea ahalbidetzen dutelako; eta malguena da, askotariko hitzak dituelako eta konbinazioak egin daitezkeelako, hau da, zehazteko.

Guibourg-en (2000) hitzetan, ume batek hitz egiten ikasten du hitz egiten zaiolako. Hizkuntza eskuratzeko prozesuak esan nahi du subjektuak komunikatzeko tresna berea egin behar duela, bere kultura-taldeak historian zehar berea egiteko eraiki duena. Hizkuntzak pertsonarentzat esanguratsuak diren egoeretan parte hartzen du, gizartean parte hartuz, eta horrela hizkuntza bereganatuz.

Mayor-rentzat (1994), ahozko hizkuntzaren jabeak inguruko pertsonetara interakzio-prozesu bati esker gertatzen da, eta oinarri fisiologiko eta anatomiko zehatz batzuen gainean finkatzen da, garapen-prozesu bati jarraituz. Prozesu horren mekanismoak oraindik ez daude behar bezala azalduta, baina prozesu kognitibo, afektibo eta linguistikoek esku hartzen dute prozesu horietan. Bestalde, hizkuntzak, esperientziari esker, gero eta funtzio gehiago hartzen ditu bere gain, sozialak zein indibidualak, eta funtsezko faktorea da haurraren nortasuna egituratzeko.

1.2. Hizkuntzaren dimentsioak

Umearentzat garrantzitsua da hizkuntzaren forman eta edukian sakontzea, honek bere ingurunera eta gizartera hurbiltzen lagunduko baitio. Zenbat eta garatuagoa izan hizkuntzaren forma eta edukia, orduan eta erraztasun handiagoa izango du hizkuntza gizartean erabiltzean. Gainera, hizkuntzaren dimentsioak formaren, edukiaren eta erabileraren arabera garatzen dira (Yepez eta Padilla, 2021).

Alde batetik, dimentsio fonologikoa dago. Yepez-ek eta Padilla-k (2021) diote dimentsio honetan kontzientzia fonologikoari ematen zaiola garrantzia, haurraren trebetasun jakin batzuk garatzen laguntzen duelako; hala nola, hitzen soinuak identifikatzen. Kontzientzia fonologikoaren garapenarekin, haurrek hitzak osatzen dituzten soinuen kontzientzia dute, hitzak fonemez osatuta daudela ulertzea ekartzen du.

Horretaz gain, dimentsio semantikoa kontzientzia semantikoak hizkuntzaren ulermenari egiten dio erreferentzia. Haurrek hitzekin jolasteko eta hitzen esanahia aztertze gaitasuna dute. Gainera, dimentsio honek haurrari hitzen esanahia ulertzen ahalbidetzen dio (Yepez eta Padilla, 2021).

Beste alde batetik, dimentsio morfosintaktikoa dago. Morfosintaxia morfologia eta sintaxia hitzetatik dator. Morfologiak hitzen barne-egitura eta hitzak eratzeko prozesua azaltzen du, eta sintaxiak, berriz, hitzak nola konbinatzen diren sintagmak, perpausak eta esaldiak osatzeko deskribatzen du. Hortaz, hitzak esaldiak sortzeko nola konbinatzen diren eta zeintzuk diren konbinaketa horien oinarrian dauden arauak ulertzen ahalbidetzen du morfosintaxiak (Yepez eta Padilla, 2021).

Azkenik, dimentsio pragmatikoak aurreko hiru dimentsioen eskurapena integratzea dakar. Haurrak ikasi behar du esaten duen horrek hartzailearengan eragin jakin bat daukala, hau da, hizkuntzak funtzio ezberdinak betetzen dituela (Yepez eta Padilla, 2021).

1.2.1. Hizkuntzaren dimentsioen garapena

Hizkuntzaren dimentsio bakoitza urteetan zehar garatu egiten da, eta Mayor-ek (1994) horrela azaltzen du eboluzio hau:

1. *Dimentsio fonologikoa*: Sistema fonologikoa eskuratzea eta garatzea 6 urte inguruko prozesua da. 9 hilabete aldera, lehen bokalak argi eta garbi ahoskatzen dira, eta 12 hilabete inguruan, haurrak oinarriko soinu kontsonantikoak ekoizten ditu. Hortik aurrera, hitzak sortzeko fonemak konbinatzen ikasten du. Lehenengo hitz hauen ahoskera sinplifikatzeko prozesu fonologiko ezberdinak erabiltzen dituzte, eta horiek, Ingramek (1976) deskribatzen ditu. Prozesu horiek hiru motatan banatzen ditu: batetik, fonemen ordezkapena; bestetik, asimilazioa (hitz beraren barruan bi fonema daudenean aldatzen edo ordezkatzeko); eta, azkenik, egitura silabikoaren

sinplifikazioa (hitzak kontsonante-bokalez osatutako oinarritzko silabara mugatzen dira).

2. *Dimentsio semantikoa*: Haurrek hitzak ekoizten hasten dira lehen urtetik aurrera. Hasieran erabiltzen dituzten hitzak izenak dira. Bi hitzeko konbinaketak 18-24 hilabete bitartean gertatzen da, eta konbinaketa horietan kategoria lexikoko hitzak baino ez dira agertzen: hau da, izenak, aditzak, adjektiboak eta zenbait adberbio. Elementu funtzionalak beranduago agertuko dira (determinatzaileak, izenordeak, aditz laguntzaileak, ...). Horiek erabiltzen hasi orduko, haurren ekoizpenek konplexutasun handiagoa erakutsiko dute: esaldiak ekoizten hasiko dira.
3. *Dimentsio morfosintaktikoa*: Aurretik esan den bezala, bi urteko umeak bi hitzeko fasean daude. Elementu lexikoak baino ez dira erabiltzen bi hitzeko konbinaketa horietan eta ez ditu elementu funtzionalik erabiltzen. Hirugarren urtean, hau da, haurrak 24 hilabete dituenetik 36 hilabete dituen arte, gutxi gorabehera, 3 eta 4 hitzeko konbinazioak agertzen dira. Hasieran intonazioak markatzen du galdera, eta geroago bakarrik sartuko ditu haurrak zer edo non partikulak. 4 urterekin, perpaus sinpleak egiten ditu, eta hortik aurrera, 6 urte bete arte, mendeko perpausak, elkarren ondoan jarritakoak eta koordinatuak, eraikitzen ikasten ditu.
4. *Dimentsio pragmatikoa*: 1.2. atalean azaldu den bezala, dimentsio pragmatikoa beste dimentsioen eskurapena integratzean datza eta, hortaz, beste dimentsioak garatzen diren bitartean hau ere garatuko da.

1.3. Euskararen jabekuntza

Euskararen bereizgarri fonologiko, semantiko, morfosintaktiko eta pragmatikoen jabekuntza aztertu duten hainbat lan daude Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) jasotzen duten bezala. Baina orain, dimentsio morfosintaktikoaren jabekuntzaz arituko gara.

1.3.1. Izen sintagma

1.3.1.1. Deklinabidea

Deklinabide kasuak, umeek lehen aldiz esaten dituztenetik eta erabiltzen ikasten dituzten arte denbora igarotzen da (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022). *Non*, *norena* eta *nori* bigarren urtean, gutxi gorabehera, agertzen diren deklinabide kasuak dira (Barreña, 2012). Hauen ondoren, *norentzat*, *nork*, *nora*, *norekin* eta *noraino* datoz.

1.3.1.2. Kasu gramatikalak

Gutierrez-ek eta Ezeizabarrena-k (2022) diote deklinabide kasu guztiak ez direla berdinak. Batzuk esanahi lexikoa dute (*non, nora, norekin*), eta beste batzuk gramatikalak dira, aditz laguntzailearekin bat egin behar dutelako. Hauek absolutiboa (\emptyset), datiboa (-ri) eta ergatiboa (-k) dira. Deklinabide kasu hauek erabiltzeko, umeez denbora gehiago behar dute esanahi lexikoa dutenekin alderatuta. Gainera, umeez lehen menderatzen dutena absolutiboa da; ondoren, datiboa; eta azkenik, ergatiboa. Esan den bezala, absolutiboa da haur euskaldunen esaldietan agertzen den lehen kasua. Haurren lehen ekoizpenetan, izenak edo izen-sintagmak bakarrik agertzen dira, eta horiek absolutiboa (\emptyset) dute atzizki bezala. Bestetik, datiboari eta ergatiboari dagokienez, bi urte eta bi urte eta erdiren arteko ume euskaldun gehienek ergatiboa (%60) eta datiboa (%70) erabiltzen dituzte (Ezeizabarrena, 2013). Adinean aurrera egin ahala, ume gehiagok erabiltzen dituzte kasu gramatikal hauek.

1.3.1.3. Determinatzaileak

1.3.1.3.1. Artikuluak

Artikuluak ez dira hizkuntza guztietan berdin garatzen. Ingelesean, adibidez, artikulua mugatua mugagabearen ordean erabiltzen da; ume euskaldunek, berriz, -a artikulua erabiltzen dute hasieratik eta, ondoren, mugatzaileak erabiltzen dituzte (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

Gutierrez-ek eta Ezeizabarrena-k diote (2022), euskara ikasten duten haurrek hasieratik erabiltzen dutela -a artikulua, esaten dituzten lehen hitzak izen arruntak direlako eta hauek, normalean, -a artikulua erabiltzen dituztelako. Bestetik, bi urteak aldera, beste motatako mugatzaileak erabiltzen hasten dira (*bat, beste* edo *beste bat*).

1.3.1.3.2. Zenbatzaileak

Zenbatzaileak kopurua adierazten dute, eta zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke. Bi-hiru urte artean hasten dira haurrak zenbatzaileak esaten. Ez denez berdina zenbaki-segidak esatea, zenbatzea edo zenbakien kopuru zehatzak adieraztea, urte gehiago behar dituzte hauek zehazteko; horregatik, 4-5 urterekin *asko, gutxi* eta *guztiak*, eta ondoren, *batere ez* eta *batzuk* erabiltzen dituzte (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

1.3.2. Aditz sintagma

1.3.2.1. Denbora marka

Nahiz eta haurrek goiz hasi iraganari buruz hitz egiten, ez dituzte horretarako lehenaldiko adizkiak erabiltzen. Urte erdira arte orainaldiko adizki-formak esaten dituzte eta lau urtera arte oso aditz laguntzaile desberdin gutxi erabiltzen dituzte iragana adierazteko (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

1.3.3. Esaldi maila

1.3.3.1. Perpaus elkartuak

Haurrak bi urterekin hasten dira esaldi sinpleak bata bestearen atzetik esaten, loturarik gabe. Gero, hasten dira bi aditz esaldi berean txertatzen. Eta ondoren, bi urte eta erdirekin, hasten dira *eta* bezalako juntagailuak erabiltzen. Gainera, lehenengo menpeko perpausak ere erabiltzen hasten dira. Hasieran, *-ta* edo *-tzea* mederagailuak erabiltzen dituzte, eta, hiru-lau urtetik aurrera *-ela*, *-lako*, *-enean* menderagailuak erabiltzen hasten dira (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

1.3.4. Ipuin kontaketa: autonomia

Ipuina kontatzeko hainbat trebetasun izan behar ditu kontalariak. Lehenik eta behin, bi parte-hartzaile daude momentu horretan, ipuin-kontalaria eta entzulea, eta kontaketa bakarriketa modukoa izaten da. Dena txanda batean edo gutxitan kontatzen da, eta gainera, ipuinaren ezinbesteko atalak agertu behar dira: hasiera, korapiloa eta amaiera. Halaber, atal bakoitzak testu-markatzaile ezberdinak ditu, eta ohikoenak hasierakoa eta bukaerakoa dira (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

Ipuina guztiz bakarrik kontatzeko, kontaketarako autonomia garatu behar du umeak, edukiak antolatuz, lotuz eta kohesioa emanez. Gaitasun hau urteak pasata ikasten da: hiru urtera arte, helduaren laguntza behar dute ipuina kontatzeko, baina umeak autonomia garatzen hasten dira, gero eta esaldi luzeagoak eginez, eta hauek kateatuz; lau urtetik aurrera, agertzen ez diren gaietarako buruz ere hitz egiteko gai dira, eta helduaren laguntza behar izaten dute; bost urtetik aurrera, haurrak ez du helduaren laguntza behar izaten, eta ipuina osatzen laguntzen dio (Gutierrez eta Ezeizabarrena, 2022).

1.4. Familiaren eta ikastetxearen garrantzia hizkuntzaren garapenean.

1.1 atalean esan den bezala, Bigas-ek (1996) eta Guibourg-ek (2000) diote gizartearen ikuspegitik, hizkuntzak pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzen duela, eta sozializatorako tresna baliagarri bihurtzen dela; aldi berean, oinarrizko premiak asetzeko eta besteen portaera erregulatzeko balio du. Hori da, agian, funtzio nabariena. Baina, norbanakoaren ikuspegitik, ahozko hizkuntza pentsamendua kodetzeko tresna ere bada. Beraz, aukera ematen du hori antolatzeko eta hausnarketan eta kontzeptualizazioan laguntzeko.

Familia eta eskola haurren gaitasunak garatzeko bi esparru nagusiak direla dio Bigas-ek (2000). Eskola-errealitateari heltzean, kontuan hartu beharko dira ikastetxean sartu aurreko esperientziak. Ikasle taldeak anitzak dira eta batzuetan baten batek ez du besteekin komunikatzeko beharrik; beste batzuetan, berriz, bakartiagoak dira eta ez dute komunikazioarekiko interes nabarmenik adierazten.

Alde horiek hainbat faktoreren ondorio dira (Bigas, 2000): alde batetik, faktore indibidualak, haurrak modu berezian bizi dituen egoerekin lotutakoak, haien izaeran eragina dutenak. Bestetik, haurrak bere ingurunetik jasotzen dituen arretarekin eta afektuarekin lotutako faktoreak ere badira. Haur hauen artean, arretarik gabeko haurrak, edo oso estimulazio gutxiko haurrak daude eta beren garapenean, komunikazioan, hizkuntzan eta kognitiboan urritasuna adieraz dezakete. Azkenik, familiako kideekin izan duten elkarreaginarekin lotutako faktoreak daude, familiarekiko elkarreaginaren kalitatearen mende daudenak.

Bigasek (2000) ziurtatzen du, familia batzuek garrantzi handia ematen diotela seme-alabekin duten harremanari. Haur horiek familiako protagonistak dira; izan ere, helduei galderak egin diezazkiekete, arretaz entzun diezazkiekete, eguneroko jardueretan parte har dezakete haiekin batera, eta elkarrizketetan parte har dezakete. Helduek, berriz, galderak eginez, adierazi nahi dutena hobeto azaltzen laguntzen diete. Azken batean, maitasun-harreman batean komunikatzeko aukera ematen diete, eta harreman horrek estimulatzen egiten ditu eta segurtasuna ematen die.

Haurren hizkuntza-esperientziak familiaren baitan lortutako elkarrizketa-praktiketara mugatzen dira. Hizkuntza ulergarria erabiltzen dut sortzen den testuinguruan, termino

zehatzak erabiliz. Gainera, elkarrizketa-gaiak gertaerei eta bizitzarekin lotura handia duten pertsonen buruzkoak dira (Bigas, 2000).

Esan den bezala, Bigas-ek (2000) dio, haurren gaitasunak garatzeko beste esparru bat eskola dela. Haurrak eskolan sartzeak erabateko aldaketa dakar haientzat, orain arte bizi izandako egoerarekin alderatuta. Urrats horretan, hizkuntza oso tresna garrantzitsua izango da; alde batetik, irakaslearen hizkuntza, lasaitzen eta segurtasuna ematen duena, eta, bestetik, hizkuntza, sozializatorako eta besteekiko harremanetarako elementu gisa.

Ikastetxeak duen erronkari dagokionez, haurren hizkuntzaren garapena zein eta nolakoa den ezagutzea da, eta, bertatik abiatuz, hau garatzea eta aberastea. Ikasle bakoitzak testuinguru desberdina du, eta horrek bere indarguneak eta ahulguneak izatea eragiten du. Horregatik, ikastetxean, irakasleak, ikasgelan planteatutako jardueren bidez, laguntza emango die haur guztiei beren ahulguneak hobetzeko (Erriondo, 2003).

Erriondo-k (2003) dio eskolak ahozko hizkuntzaren ikaskuntzan bultzatu beharko lukeela, baina ikasgelan eta haurren inguruan gauzatzen denari dagokion erabilera linguistikoaz bat etorriz. Umearen hizkuntza horren erabilerarekin garatuko da, ez soilik irakaslearen azalpenaren bitartez. Era honetan gertatzen ez bada, hizkuntzaren garapenean zailtasunak sortu daitezke.

Zein da gure eskoletako egoera berezia? Eskolako hizkuntza (euskara) ez dela ikasle askoren ama hizkuntza eta hortaz, gelan izan ditzakegu euskararen jabekuntza prozesuan nahiko aurreratuta dauden haurrak euskararen jabekuntza prozesua hasi berri dutenekin nahastuta. Edozein ikaslek “testuinguruaren irudikapena eraiki eta bere komunikazio helburuaren araberrako ideiak antolatu eta hitz bihurtu behar ditu, baina hitz horiek, egokiak eta zehatzak izateaz gain, segida onean joan behar dute, bakoitzak behar duen lekuan, perpausaren zein testuaren legeei jarraiki (Ruiz Bikandi, 2003)”. Horregatik, euskaraz seguru sentitzen ez dena ama-hizkuntza erabiltzen du euskaraz dituen hutsuneak betetzeko (Ruiz Bikandi, 2003).

Marko teoriko honetan azaldutakoa kontuan hartuta, hurrengo atalean umeen gaitasun komunikatiboa aztertzeke eta alderatzeko erabili den metodologia azalduko da.

2. Metodologia

Ikerketa hau Anaitasuna ikastolako haur hezkuntzako geletan burutu da (Ermua). Herrian gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da (%83), nahiz eta biztanleriaren %33,64a euskalduna izan (Eustat, 2022). Hortaz, ikastetxe honetan ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania da, baina geletan beste ama hizkuntza batzuen presentzia ere badago, euskara eta arabiera, esaterako.

Ikerketa honetako parte hartzaileak aukeratzeko bi irizpide hartu dira kontuan: alde batetik, umeen adina eta, bestetik, umeen ama-hizkuntza. Adinari dagokionez, hiru, lau eta bost urteko haurrak aukeratu dira. Ama-hizkuntzari dagokionez, hiru aukeratu dira: gaztelania, euskara eta hirugarren hizkuntza bat, kasu honetan, arabiera. Era honetara, bederatzia hurrek hartu dute parte ikerketan. Aldi berean, heldu batek ere parte hartzen du grabaketetan.

Ikerketa hau egiteko, lehenik eta behin, ikastetxeko zuzendariarekin harremanetan jarri behar izan da, grabaketak egitea posible zen jakiteko. Posible izango zela erabaki zenean, 3, 4 eta 5 urteko eskolako haurren tutoreen laguntzarekin, planteatutako egoerara hobekien egokitu zitezkeen haurrak aukeratu ziren. Ondoren, baimena bidali zitzaientzaien familiei beren seme-alabak audio bidez grabatu ahal izateko.

Datuak jasotzeko ipuinaren birkontaketa teknika erabili da. Aukeratu den ipuina "Elmer" da. Horrek, hurrei balio positiboak transmititzen dizkien mezua izateaz gain (elkartasuna edo desberdintasunen ospakizuna, adibidez), esan den bezala, hurrek ipuina kontatzeko erabil ditzaketan ilustrazioak ditu. Helduaren papera prozedura honetan ipuina kontatzearena da. Bestetik, ipuina modu autonomoan kontatzen ez dakiten hurrei laguntzen die, galderak eginez.

Prozedurari dagokionez, grabazioak egin aurreko asteetan, hurrekin lehen kontaktu bat izan zen haurra erosoago sentitu ahal izateko grabaketa egiterakoan, ondoren arazorik ez suertatzeko. Lehenengo hartu-eman horretan, gero grabazioetan erabiliko zen ipuina irakurtzea erabaki zen, eta, gainera, galderak egin ziren irakurketan zehar.

Grabaketa egiteko testuingurua azaldu zitzaientzaien ikasleei. Hau esan zitzaientzaien: "nire lagun bati asko gustatzen zaizkio hurrek kontatutako ipuinak. Lagunduko didazu ipuina kontatzen?"

Lehenengo nik kontatuko dizut eta gero zuk niri". Grabazioak bi aldiz errepikatu ziren, bi hilabeteko aldearekin.

Azkenik, datuen azterketa egiteko, lehenengo grabaketen transkribapenak egin dira. Ondoren, behatuko diren ezaugarriak erabaki dira. Erabaki hori hartzeko, dimentsio morfosintaktikoan jarri da fokua, nahiz eta dimentsio semantikoa ere agertzen den. Umeen ekoizpenetan, izen sintagma mailan agertzen diren elementuak (erabiltzen diren hitz motak, determinatzaileak, deklinabide kasuak eta kasu gramatikalak) aztertuko dira; bestetik, aditz sintagma mailan erabiltzen diren elementuak (aditz mota, denboraren erabilera, komunztadura); eta azkenik, esaldi mailan, perpausen konplexutasuna aztertuko da. Beste bi dimentsioak (dimentsio fonologikoa eta pragmatikoa) ez dira aztertu, bata testuingurua itxia delako, eta bestea, haurren ekoizpenetan alde nabarmenik ikusi ez delako.

Hizkuntzaren dimentsioen garapena kontuan hartuta, 5 urteko haurrek ipuina modu autonomoan kontatzeko gaitasuna izango dutela uste da, eta gainera, ama-hizkuntza euskara duten haurrek errazago kontatuko dute ipuina eta ama-hizkuntza gaztelania edo arabiera duten haurrek baino hiztegi gehiago izango dutelako. Laburbilduz, adin bereko haurretan, ipuina kontatzeko erraztasun handiena izango duen haurra ama-hizkuntza euskara duena izango da; eta, bestalde, zenbat eta nagusiagoa izan haurra, orduan esaldi konplexuagoak erabiliko ditu eta aurrera egitea adinarekin nabaritutako da; hau da, 3 urtekin hitzak edo esaldi sinpleak erabiliko ditu, 4 urterekin sinpleak eta konplexuak eta 5 urterekin esaldi konplexuak.

Bestetik, Gutierrez-ek eta Ezeizabarrena-k (2022) dioten bezala, 3 urterekin aditza orainaldian erabiliko dira eta 4 eta 5 urtekoak lehenaldian kontatuko dute ipuina. Halaber, kasu gramatikalei dagokienez, absolutiboa izango da lehen erabiliko dena. Aitzitik, uste da deklinabideen erabilera ez duela egingo bat Gutierrez-ek eta Ezeizabarrena-k (2022) diotenarekin. Testuingurua itxia da eta, hortaz, deklinabidearen erabilera aldatu egingo da hasierako helduaren kontaktaren eta helduak haurraren ipuin-kontaktetan egiten dituen galderen arabera.

3. Lanaren garapena

Atal honetan, haurren ekoizpenak deskribatuko dira aurreko atalean jasotako irizpideen arabera. Aurretik esan dugun bezala, bi grabaketa egin dira baina horien azterketa egin

ondoren, ez dugunez bien artean alde handirik atzeman, haurraren garapen morfosintaktikoa azaltzeko grabaketa biak batera kontuan hartuko dira. Bestalde, haurren datuak deskribatzean, lehenengo hiru urteko haurren datuak aurkeztuko dira: etxean euskaraz egiten duena, ondoren, gaztelania egiten duena eta azkenik, arabiera egiten duena. Gero, lau urtekoak datoz eta horien ondoren, bost urtekoak.

3.1. 3 urteko umeak

3.1.1. Euskara ama-hizkuntza bezala

Deskribatuko den lehenengo umeak 3 urte ditu eta bere ama-hizkuntza euskara da. Trankribapenean ikusi daitekeen bezala, ez da gai ipuina era autonomoan kontatzeko eta helduaren laguntza behar izan du. Helduak galderak egin dizkio haurrak ipuina kontatzen jarrai dezan (ikus 1. eranskina).

Izen sintagmari dagokionez, ume honek erabiltzen dituen hitz gehienak izenak eta adjektiboak dira, eta hauek singularrean eta pluralean erabiltzen ditu (elefantea, animaliak eta horia). Gainera, hauek batera agertzen direla ikusi da (susto handia) Izenak agertzen direnenan, batzuetan, determinatzeileekin batera doaz (mahats guztiak edo beraren lagunekin), eta hauek *artikulu zehaztuak* (grisak), *zenbatzaileak* (mahats **guztiak**) eta *posesiboak*.

Deklinabide kasuetan, ipuina kontatu duenenan agertzen diren izen sintagma guztiak ondo deklinatuta daude eta gehien agertzen dena *nora* deklinabidea da (oihanera), baina beste deklinabide marka batzuk ere erabiltzen ditu, *noren*, *norekin* edo *nolako* deklinabide markak (elefanteen, lagunekin eta koloretakoa). Horiek erabiltzeaz gain, *zerez* edo *noren* deklinabideak (grisez edo beraren), besteak beste.

Aditz sintagmari erreparatuz, *nor* eta *nor-nork* motatako aditzak erabili dituela egiaztatu da, eta horiek lehen eta orainaldian agertzen dira ('Joan **da**', 'Zergatik ez **zen** grisa', 'Nahi **duelako** izan beste elefanteen moduan' eta 'Hartu **zuten**'). Gainera, *nor-nori* motatako aditz baten erabilera ageri da orainaldian (Kolorea aldatu *zaio*). Kasuren batean, aditz laguntzailea ekoiztea falta izan zaio (Mahats guztiak lurrera jauzi). Gainera, aditz laguntzailearen aukeraketa egokia egin du eta singularra vs plurala numero komuntadura ere ondo egin du.

Azkenik, esaldi mailari dagokionez, hitz solteak erabiltzen ditu gehienbat (izenak eta adjektiboak). Aurretik esan den bezala, 3 urteko haurrek laguntza behar dute ipuina kontatzeko, ez dutelako era autonomoan kontatzeko trebetasunik erakusten. Elkarrizketaren testuinguruan arrunta den bezala, hortaz, umearen erantzun asko ez dira esaldi osoak. Hala ere, haurrak zenbait esaldi ekoitzi ditu eta horien artean, esaldi sinpleak eta konplexuak identifikatu ditzakegu ('Joan da' eta 'Elmer ez zela beraren berdina'). Haurrak egiten dituen esaldi konplexuei erreparatuz gero, menpekoak direla ikusten da, eta, horregatik, menderagailuak erabiltzen ditu. Erabili dituen menderagailuak *-ela* (Elmer ez **zela** beraren berdina) eta *-lako* (Nahi **duelako** izan beste elefanteen moduan) izan dira, baina, menpeko esaldi batean *-lako* menderagailua erabili beharrean 'Zergatik' galdetzailea erabili du esaldiaren hasieran (**Zergatik** ez zen grisa).

3.1.2. Gaztelania ama-hizkuntza bezala

Bigarren ume honek ere 3 urte ditu eta bere ama-hizkuntza gaztelania da. Grabazioen transkribapenetan ikusi daitekeen bezala, umea ez daki bera bakarrik, era autonomoan, ipuina kontatzen eta helduak laguntza eskaintzen dio galderak eginez (ikus 2. eranskina).

Izen sintagma aztertzeko orduan, ikusi daiteke izenak singularrean eta pluralean eta adjektiboak esaten dituela, baina hauek ez doaz bata besterekin egitura konplexuagoak sortuz (Koloreak, laranja edo mahatsa). Izena determinatzaile ezberdinekin agertzen da (susto bat edo kolore asko). Determinatzaile hauek *artikulu zehaztuak* (**grisak**), *zenbatzaileak* (susto **bat**) eta *zehaztugabeak* (kolore **asko**) dira. Deklinabideen kasuan, *norekin* (lagunekin), *non* eta *norena* (maiatzan eta Elmerrena) deklinabide atzizkiak erabili ditu.

Aditz sintagmari dagokionez, haurraren ekoizpenean orokorrean aditzak eta aditz laguntzaileak falta dira, baina kasu batean, izan aditza *nor* kasuan erabili du orainaldian (**Ke dala** Elmer.). Kasu honetan singularra vs plurala numero komunztadura ondo erabilita dago (**Ke dala** Elmer).

Azkenik, esaldi mailari erreparatuz, hitz solteak erabili ditu kasu bakar batean izan ezik (lagunekin jolastu). Bestetik, aditz laguntzaile gabeko esaldi sinpleak esaten ditu (Bota lurrera) eta, gainera, esaldi konplexu bat erabili du *-ela* menderagailua erabiliz. Horrez gain, 'ke' hitza erabili du, gaztelaniatik mailegututako hitz bat erabiliz (**Ke** dala Elmer).

3.1.3. Arabiera ama-hizkuntza bezala

Hiru urteko azken ume honen ama-hizkuntza arabiera da eta transkribapenetan ikusi daitekeen bezala, haurrak erantzuteko helduaren laguntza behar du eta ematen dituen erantzunak helduak esandakoaren errepikapen hutsak dira (ikus 3. eranskina).

Esan den bezala, ume hau helduak esaten duena esaten saiatzen da. Hitz horien izenak eta adjektiboak dira, gehienbat. Helduak hitzaren hasiera esaten du eta hitza osatzen saiatu beharrean, haurrak helduak dioena errepikatzen du (Heldua: Zer kolore da hau? Go...; Umea: GO; Heldua: Gorri...; Umea: Gorri). Bestetik, bigarren grabaketan, hitz bakarra esan du laguntza gabe eta hitz hori adjektiboa izan da (horia).

Aditz sintagmari dagokionez, ez du aditz eta aditz laguntzailerik esan eta, ondorioz, ez du esaldirik sortu.

3.1.4. 3 urteko umeen datuak laburtuz

Determinatzaileei eta deklinabide motei dagokionez, euskaraz egiten duen umeak beste umeekin alderatuta, mota gehiago erabiltzen ditu. Besteek, aldiz, ez dituzte deklinabide eta determinatzaile ezberdin asko erabiltzen.

Hiru urteko ume hauen transkribapenak alderatzean, ikusi da hiru umeek behar izan dutela helduaren laguntza ipuina kontatzeko, ez direlako gai izan era autonomoan egiteko. Horregatik, ipuina galdera-erantzun eran kontatu da, helduak galderak eginez eta umeak erantzunez. Bestetik, nahiz eta gai ez izan ipuina bakarrik kontatzeko, etxean euskaraz egiten duenak esaldi sinple eta konplexu batzuk egin ditu eta hauetan *nor* eta *nor-nork* motatakoa aditzak erabili ditu orain eta lehen aldian, baina nabarmentzekoa da orainaldia dela gehien erabiltzen duena. Etxean gaztelaniaz eta arabieraz egiten dutenak aldiz, ez dira gai izan esaldiak egiteko, eta, gainera, bere ama-hizkuntza arabiera den umeak hitz bakarra esan du laguntza gabe, eta beste guztiak helduak esandakoa imitatzen izan dira. Honekin batera, izen sintagman erabili den kasu gramatikal bakarra absolutiboa izan da euskaraz eta gaztelaniaz egiten duten umeen kasuan.

3.2. 4 urteko umeak

3.2.1. Euskara ama-hizkuntza bezala

Orain, 4 urteko umeak deskribatuko dira. Lehenengoaren ama-hizkuntza euskara da eta trankribapenetan ikusi daitekeen bezala (ikus 4. eranskina), ipuina kontatu duen lehen aldian ez da izan gai era autonomoan kontatzeko. Bigarren aldian, ordea, ez du hainbeste laguntza behar izan ipuina kontatzeko. Hau ume lotsatia delako gertatu da eta helduarekin konfiantza handiagoa lortu duenean, ipuina ia laguntzarik gabe kontatzeko gai izan da.

Lehen aipatu den bezala, izen sintagma aztertuko da. Ume honek adjektiboak eta izenak esaten ditu eta biak singularrean eta pluralean (koloretakoa, desberdinak, euria eta animaliak). Bestetik, izena adjektiboarekin batera agertzen da (Elmer kolore grisa kendu zaion) eta, gainera, determinatzailea izenari jarraituz (mahats guztiak). Horrez gain, hiru elementu horiek erabiltzen ditu esaldi berdinean (elefante batzuk koloretakoa). Determinatzaileei dagokionez, *artikulu zehaztuak* (grisa), *zehaztugabeak* (elefante **batzuk**), determinatzaile *zenbatzaileak* (mahats **guztiak**) eta *posesiboak* (**bere** tronpakin) erabiltzen ditu.

Deklinabideen kasuen erabilerari dagokionez, ikusi da *nora* (oihanera), *noren* (Emerren), *zerekin* (tronparekin) eta *nolako* (koloretakoa) erabili dituela. Haez gain, beste deklinabide kasu batzuk ere erabili ditu: *norekin* (lagunekin), *nondik* (oihanetik), *nongo* (basoko) eta *zerez* (grisez).

Kasu gramatikalen erabileran, ikusi daiteke hasieran absolutiboa bakarrik erabili duela (**Mahats guztiak** jausi ziren eta **Euria** hasi zen). Baina gero, absolutiboa erabiltzeaz gain (**Zuhaitz bat** tronpakin bultzatu zuen), datiboa ere erabili du (**Elmerreri** pilo bat gustatzen zaion jolastea lagunekin). Aitzitik, ez du ondo adierazi datiboaren kasua esaldi batean (**Elmer** kolore grisa kendu zaion). Ergatiboari dagokionez, behin erabiltzen du eta era egokian izan da (beste animalia ohianekoek esan zuten).

Aditz sintagmari dagokionez, *nor* eta *nor-nork* motatako aditzak erabili ditu lehenaldian (Mahats guztiak jausi **ziren** eta Ez **zekiten** zela Elmer). Bestetik, *nor-nori* motako aditza ere erabili du, baina orainaldian (Kolorea joan **jako**). Bestalde, kasu batzuetan aditz laguntzaile falta izan zaio (Dana margotu). Gainera, singularra vs plurala numero komunztadura ondo erabili du (**Euria** hasi **zen**).

Azkenik, esaldi mailari dagokionez, lehen esan den bezala, lehen grabaketan umeak laguntza behar izan du ipuina kontatzeko, horregatik ez ditu esaldi asko esan. Esan dituenen artean, esaldi simple (Mahats guztiak jausi ziren) eta esaldi konplexu (Ez zekiten zela Elmer) batzuk agertzen dira. Esaldi konplexuen barruan, batzuk menpekoak dira, aurreko adibidean ikusi daitekeen bezala, eta menpekoak diretan menderagailuak agertzen dira, kasu honetan *-ela* menderagailua. Bestetik, menpekoak ez diren perpaus konplexuak ere daude, eta hauetan juntagailuak erabiltzen ditu (Eurria hasi zen **eta** kolorea joan jako).

Bigarren grabaketan aldiz, ez du hainbeste laguntza behar izan eta esaldiak berak bakarrik sortzen ditu. Horretik, esaldi gehiago ikusi daitezke, perpaus konplexuak gehienbat. Horien artean, menderagailua erabili du: *-ela* (Eta holan zekiten **zela** Elmer). Bestalde, juntagailuak erabili ditu bi esaldi lotzeko: adibidez, *eta* (Eta susto handia hartu zuten **eta** danak buruzbera ipini ziren), *baina* (Elmerreri pilo bat gustatzen zaion jolastea lagunekin, **baina** ez zaion gustatzen koloretakoa izatea.), *batzuk... eta beste batzuk...* (**Batzuk** grisak **eta** **beste batzuk** urdinak).

3.2.2. Gaztelania ama-hizkuntza bezala

Lau urteko bigarren ume honen ama-hizkuntza gaztelania da eta grabaketetan zehar bi hizkuntzak tartekatzen ditu ('Urdina muy muy clarito' edo 'ortzadarrekoa, bueno tiene todos estos') Bestetik, laguntza behar izan du ipuina kontatzeko eta helduak galderen bidez lagundu dio (ikus 5. eranskina).

Izen sintagmari dagokionez, ume honek izenak eta adjektiboak singularrean eta pluralean erabiltzen ditu (eurria, koloreak, urdina eta grisak). Gainera, transkribapenean zehar biak batera aurkitu daitezke egitura konplexuagoak lortuz (susto handia). Izena determinatzaile ezberdinekin ere agertzen da (bere lagunekin eta elefante guztiak). Determinatzaile horiek, mota ezberdinekoak dira: *artikulu zehaztua* (urdina), *posesiboa* (**bere** lagunekin) eta *zenbatzaileak* (elefante **guztiekin**).

Deklinabideei erreparatuz, ikusi daiteke kasu ezberdinak erabili dituela: *nongoa* (ortzadarrekoa), *norekin* (lagunekin), *nora* (oihanera), *zerekin* (tronpakin), *noren* (Elmerren) eta *zerez* (grisez). Izen sintagman, azkenik, kasu gramatikalen erabilera aztertu da, eta absolutiboa hainbat kasutan erabili duela ikusi da (**Mahatsondoa** heldu zuen eta **mahatsak** jausi zuen).

Aditz sintagman, aditzaren erabilera aztertu da, eta *nor* eta *nor-nork* aditz motak erabili ditu *nor* lehenaldian (Eta oihanera heldu **zen**) eta *nor-nork*, aldiz, orain (Nahi **du**) eta lehenaldian (Zergatik nahi **zuen** izan beste modu batekoa). Halaber, *nor-nori-nork* aditz mota erabili du lehenaldian (eta esan **zion**: Kaixo Elmer!). Gainera, esaldi batzuetan aditz laguntzailea falta izan zaio ('Hartu tronpakin eta mugitu' eta 'Ospatu Elmerren eguna').

Azkenik, esaldi mailari dagokionez, hitz solteak erabili ditu (Jolastea) eta esaldi sinpleak eta konplexuak sortu ditu ('Mahatsondoa heldu zuen' eta 'Zergatik nahi zuen izan beste modu batekoa'). Kasu honetan, menderagailuak eta juntagailuak erabili ditu perpaus konplexu hauek sortzeko: *-lako* menderagailua erabili beharrean *Zergatik* hitza erabili du (**Zergatik** nahi zuen izan beste modu batekoa) eta juntagailuen artean *eta* izan da erabili duena (Hartu tronpakin **eta** mugitu).

3.2.3. Arabiera ama-hizkuntza bezala

Lau urteko azken ume honen ama-hizkuntza arabiera da. Ikasle hau ipuina modu autonomoan kontatzen saiatu da. Hala ere, helduaren laguntza behar izan du batez ere, ezagutza linguistiko nahikorik ez duelako ipuina jariokortasun handiagoarekin kontatzeko (ikus 6. eranskina).

Transkribapenen analisia egiteko orduan, ikusi da umeak izenak eta adjektiboak singularrean zein pluralean erabiltzen dituela (jirafa, lagunak, grisa eta koloretakoak). Bestalde, izena determinatzailearen ondoan ereikusi daiteke (bat jirafa). Determinatzaile motari dagokionez, hainbat motatakoak erabiltzen ditu bere ekoizpenean: *artikulu zehaztua* (**lagunak**), *zehaztugabeak* (beste **batzuk**), *zenbatzailea* (**bat** jirafa) eta *posesiboa* (**bere** lagunak).

Deklinabideei dagokionez, *nolakoa* deklinabide kasua izan da erabili duen bakarra (koloretakoak). Azkenik, kasu gramatikalei erreparatuz, absolutiboa erabili du (**lagunak** ikusi du) eta ergatiboa erabili behar zenean absolutiboaren kasu gramatikala jarri dio (**bere lagunak** esan dit → **bere lagunek** esan diote).

Aditz sintagma aztertzeko orduan, *nor* orain eta lehenaldian ('Eta **dago** lo' eta 'Eta joan **zen** bere lagunak') eta *nor-nork* orainaldian (eta 'lagunak ikusi **du**') soilik agertzen direla ikusi da. Gainera, kasu askotan aditz laguntzailea falta izan zaio. Numero komuntadurari dagokionez, ez dago ondo erabilita (joan **zen** bere lagunak → joan **ziren** bere lagunak).

Halaber, ipuinak hirugarren pertsonan kontatzen dira, eta umeak lehenengo pertsona erabiltzen du esaldi batzuetan (bere lagunak esan **dit**).

Azkenik, esaldi mailari dagokionez, esaldi sinpleak eta konplexuak erabiltzen ditu. Perpaus konplexuak sortzeko juntagailu bat erabiltzen du eta kasu honetan *eta* da (Elmer dago korrika eta korrika, **eta** lagunak ikusi du). Gainera, esaldiak lotzeko eta istorioari jarraipena emateko *eta gero* lokailua erabiltzen du (**Eta gero**, dago). Halaber, ipuinari hasiera emateko, *egun batean* erabili du (**Egun batean**, elefanteak, dago grisa, baina urdina da).

3.2.4. 4 urteko umeen ekoizpenen laburpena

Ama hizkuntza euskara duen umeak ipuina autonomiaz kontatzeko gaitasuna erakutsi du, gaztelania eta arabiera duten umeek berriz, laguntza handiagoa behar izan dute.

Izen sintagmari dagokionez, egiaztatu da determinatzaile eta deklinabide kasu ezberdinen erabilera ugaritu egiten direla 3 urteko umeen ekoizpenekin alderatuta. Absolutiboaren erabileraz gain, datiboaren erabilera ere egiaztatu da datu multzo honetan.

Ikasle guztiek erakutsi dute esaldi sinpleak eta konplexuak sortzeko gaitasuna. Horietan nabarmena da lehenaldiaren erabilera eta aditz mota ezberdinen erabilera ere ugaritu egin dela (*nor-nori; nor-nori-nork*). Arabieraz hitz egiten duen umeak ez ditu aditz laguntzaile asko erabiltzen, nahiz eta ipuina kontatzerakoan jariokortasun nahikoa erakutsi.

3.3. 5 urteko umeak

3.3.1. Euskara ama-hizkuntza bezala

Ume honek 5 urte ditu eta etxean bi gurasoekin euskaraz egiten du. Gainera, ipuinak irakurtzea asko gustatzen zaio eta hori bere ipuin kontaketa nabaritu da, autonomiaz kontatzen duelako (ikus 7. eranskina).

Bere hitz egiteko modua aztertzeko izen sintagmatik hasi behar da. Lehenik eta behin, umeak izenak singularrean eta adjektiboak singularrean zein pluralean erabiltzen ditu, baina ez dira batera agertzen (kolorea, elefante, berdea eta handiak). Bestalde, izenak determinatzaileekin batera agertzen dira (elefante talde bat). Hauek mota ezberdinetakoak dira: *artikulu zehaztuak* (txuria), *posesiboa* (**bere** lagunak) eta *zenbatzaileak* (mahats **guztiak**).

Deklinabideei dagokionez, *nondik* (paseo batetik), *nora* (Afrikara), *zerekin* (enbor batekin), *zerez* (txuriz) eta *noren* (Elmerren) deklinabide kasuak erabili ditu. Gainera, *norekin* (lagunekin) eta *non* (mahatsen gainean) kasuak ere erabiltzen ditu. Izen sintagmari erreparatuz, azkenik, kasu gramatikalak aztertu dira. Hauek aztertzean, absolutiboa eta datiboa era egokian ('oratu zuen **egurra**' eta 'Joan zen eta **berari**...') erabili ditu eta ergatiboa erabili behar duenean ez du erabili (esan zuten bere **lagunak** → **lagunek**).

Aditz sintagmari dagokionez, *nor* (Afrikara joan **zen**), *nor-nork* (esan **zuten** bere lagunak) eta *nor-nori-nork* aditz motak (Eta esan **zioten**: Kaixo Elmer!) erabili ditu lehenaldian. Halaber, aditz mota eta aditz laguntzailea kasu batzuetan ez dator bat. Kasu honetan (txokatu **zuen** enbor batekin), aditz laguntzailea *nor* motatakoa izan beharko litzateke eta *nor-nork* motatakoa erabili du. Azkenik, numero komunztadura gehienetan era egokian erabili duen arren, 'aurkitu **zuen** bere lagunak' adibidean gaizki erabilia dago, aditz laguntzailea pluralean egon beharko litzatekelako (zituen).

Aztertuko den azken alderdia umeak ekoiztu dituen esaldien konplexutasuna da. Kasu honetan, esaldi sinpleak eta konplexuak erabiltzen ditu. Perpaus konplexuak bi motatakoak dira, batzuk menpekoak, eta beste batzuk juntagailu bidez sortutakoak: erabili dituen menderagailuak *-ela* (bere lagunak ez zekiten **zela** Elmer) eta *-enez* menderagailua ere erabiltzen du (Eta euria hasi **zenez**, ba, kendu zion kolorea) dira. Gainera, aditza + ezik erabilia, menpeko perpaus bat sortzen da eta salbuespena adierazteko erabiltzen da kasu honetan (Baina, ez, **izan ezik** bat, ez zen hain txuria). Bestetik, erabili dituen juntagailuak *eta* (hasi zen euria egiten **eta** esan zuen) eta *baina* (Jolastea lagunekin, **baina** aspertu zenez, ba denak bota zizuen, eta ihes joan zen) izan dira. Gainera, esaldiak lotzeko eta ipuin kontaktari jariakortasuna emateko *eta gero* (**Eta gero**, elefante guztiak barrezka) eta *baina gero* (**Baina gero** joan zen afrikara) lokailuak erabiltzen ditu. Azkenik, kontaketa hastean, '*Bazen behin*' esamoldea erabiltzen du (**Bazen behin**, elefante talde bat, batzuk zirena urdinagoak).

3.3.2. Gaztelania ama-hizkuntza bezala

Bost urteko bigarren ume honek, etxean erderaz hitz egiten du bi gurasoekin. Transkribapenetan ikusi daitekeen bezala, umea gai da ipuina era autonomoan kontatzeko, baina kasu batzuetan, helduaren laguntza behar izan du aurrera jarraitu ahal izateko; hortaz, helduak galderak egin dizkio, galdera horietaz baliatzeko (ikusi 8. eranskina).

Transkribapenak aztertu direnean, izen sintagmari dagokionez, izenak eta adjektiboak singularrean eta pluralean erabili dituela ikusi da (ura, animaliak, grisa eta txikiak). Bestetik, izena eta adjektiboa izen sintagma konplexuago bat sortzeko ere erabili du (kolore grisa). Gainera, izena eta determinatzailea batera erabili ditu (beste herri batera). Determinatzaileei dagokionez, mota ezberdinak erabili ditu: *artikulu zehaztuak* (mahatsak), *zehaztugabeak* (beste herri batera), *posesiboak* (bere tronparekin) eta *zenbatzaileak* (gauza bat).

Esaldian zehar deklinabide ezberdinak erabili ditu: lehenengo kontaktetan, *nolakoa* (koloretakoa), *nora* (beste herri batera), *zertara* (bilara), *zerekin* (bere tronparekin) eta *noren* (Elmerren eguna). Gainera, *nondik* (bere taldeetik), *norena* (Elmerrena), *norekin* (beste elefanteekin) eta *zerez* (kolorez) ere erabili ditu. Izen sintagmari dagokionez, azkenik, kasu gramatikalak aztertu dira. Haurrak *absolutiboa* eta *datiboa* erabili ditu ('Denak ziren koloretako berdinak' eta 'Ura hasi zen eta Elmerri...'); ergatiboa aldiz, erabili behar izan duenean ez du era egokian erabili (baina besteak ez dakite → besteek).

Aditzei dagokienez, umeak *nor* lehenaldian (Elmer joan **zen**), *nor-nork* orain eta lehenaldian ('...baina elefanteak ez **dakite** ke zela Elmer.' eta 'besteak nahi dute Elmer bezala egon, baina ezin **zuten**.'), *nor-nori* orainaldian (Kendu **zaio** kolore grisa) eta *nor-nori-nork* lehenaldian (beste animaliak esan **zien**: Kaixo, Elmer.) erabili ditu, baina azken honen numero komunztadura gaizki egin du (beste animaliak esan **zien**: Kaixo, Elmer → **zioten**).

Azkenik, haurrak esaldi sinpleak eta konplexuak osatzen ditu. Lehenengo kontaktetan, menpeko esaldi konplexua esan ditu *-ela* menderagailua erabiliz (Baina zegoen bat deitzen **dela** Elmer) eta *-lako* menderagailua erabili beharrean *Zergatik* hitza erabiliz (Eta besteak egin zinen barre, zergaitik, **zergaitik** zen Elmer). Bestetik, *-ela* menderagailua erabiltzen du gaztelaniazko 'ke' hitzaren ondoan (Gero joan zen beste elefanteekin baina elefanteak ez dakite **ke zela** Elmer). Gainera, juntagailuak erabili ditu perpaus konplexuak egiteko: *baina* (besteak nahi dute Elmer bezala egon, **baina** ezin zuten) eta *eta gero* (Mahatsak bilara **eta gero** hasi zen bere, bere tronparekin egiten...). Bestalde, esaldiak lotzeko, *eta gero* esamoldea erabiltzen du (**Eta gero**, bere tronparekin zeuan margotzen bere...).

3.3.3. Arabiera ama-hizkuntza bezala

Azken ume honek 5 urte ditu eta bere ama-hizkuntza arabiera da. Gainera, transkribapenetan eta grabaketan ikusi eta entzun daiteke gai dela era autonomoan eta jariatortasunarekin

ipuina kontatzeko. Hala ere, bigarren grabazioan helduaren laguntza behar du, eta helduak ipuina kontatzen jarraitzeko galderak egiten dizkio (ikus 9. eranskina).

Izen sintagmari dagokionez, izenak eta adjektiboak agertzen dira eta singularrean eta pluralean erabili ditu (tronpeta, mahatsak, urdina eta txukunak). Bestetik, determinatzaileak ere agertzen dira (beste basora), eta hauek mota ezberdinetakoak izan dira: *artikulu zehaztua* (mahatsa), *zehaztugabea* (**beste** basora) eta *posesiboa* (**bere** tronpeta).

Deklinabide kasuei dagokienez, *nolako* (koloretakoak), *nora* (beste basora) eta *norena* (Elmerrena) deklinabideak erabili ditu. Izen sintagmari dagokion azken azterketa kasu gramatikalak izan dira. Haurrak *absolutiboa* ('Elmer da txuria' eta 'Etorri da **bere taldekoak**') eta *datiboa* (Egon da aupatzen danok **Elmerreri**) modu egokian erabili ditu, baina, *ergatiboa* erabili behar izan duenean ez du erabili (**Elmer** dauka asko kolore → Elmerrek).

Aditz sintagmari dagokionez, *nor* ('Grisak, eta gero txikia **da** urdina' eta 'kendu **da** grisa, eta **da** Elmer') eta *nor-nork* ('Baina gero esan **du**: Kaixo elefante!' eta 'Zergatik ez **dugu** egiten fiesta bat Elmerrena?') aditzak erabili ditu orainaldian, eta numero komunztaduran akatsak aurkitu dira; alde batetik, subjektua plurala da eta aditza singularrean dago (denok **da** koloretazkoa → **dira**), bestetik, objektu zuzena plurala da eta aditzean singularrean agertzen da (Elmer **dauka** asko kolore → **dauzka**).

Azkenik, esaldiei dagokienez, umeak esaldi sinpleak eta konplexuak esaten ditu. Esaldi hauetan ez ditu mederagailuak erabiltzen eta juntagailuak erabili ditu bi esaldi batean jartzeko: horien artean, *baina* (Eta ikusi du hau ez da Elmer, **baina** bai da Elmer) eta *eta* (Eta gero, euria, **eta** kendu da grisa, **eta** da Elmer) agertzen dira. Amaitzeko, esaldiak lotzeko, *eta gero* lokailua erabiltzen du (**Eta gero**, Elmer joan da beste basorara: Kaixo Elmer!).

3.3.4. 5 urteko umeen ekoizpenen laburpena

5 urteko umeek transkribapenak aztertzean, ipuina era autonomoan kontatzeko gai direla ikusi daiteke, nahiz eta batzuetan helduak galdera batzuk egin dituen. Ume guztiek erakutsi dute ipuina autonomiaz kontatzeko jariakortasuna, eta hau lokailu eta juntagailuei (*eta*, *baina*, *eta gero*) esker da, esaldiak lotzen dituztelako istorioaren harira helduta.

Izen sintagmako kasu gramatikaleei dagokionez, absolutiboa eta datiboa erabiltzen dute gehienbat, eta eragatiboa erabiltzen saiatzen dira, baina absolutiboaren forma hartzen du. Gainera, deklinabideei dagokionez, mota ezberdinetako deklinabideen atzizkiak agertzen dira ekoizpenetan zehar.

Gainera, ekoizten dituzten esaldietan, aditz laguntzaile gehienak lehenaldian daude, nahiz eta kasu batzuetan, *nor-nori* eta *nor-nori-nork* aditz motako laguntzaileak orainaldian egon. Bestetik, etxean arabieraz egiten duen umeak, *nor* eta *nor-nork* aditz motak erabiltzen dituen orainaldian bakarrik.

4. Datuen interpretazioa

Datu guztien analisisia egin ondoren, datu hauen interpretazioa egingo da. Datuak irizpide ezberdinen arabera interpretatuko dira: alde batetik, adinaren arabera, eta bestetik, ama-hizkuntzaren arabera. Metodologia atalean azaldu den bezala, hiru gauza ezberdin aztertu dira (izen sintagma, aditz sintagma eta esaldien konplexutasuna) eta hiru horiek bi irizpide hauen ikuspegitik alderatuko dira.

Lehenik eta behin, izen sintagmari dagokionez, erabili diren hitzak aztertu dira, eta ikusi da adin guztietan izenak eta adjektiboak singularrean nahiz pluralean erabili dituztela. Gainera, ikusi da gehien erabili dituzten adjektiboak koloreak izan direla. Determinatzaileak aztertzerakoan, ume guztiek erabili dituztela ikusi da. Hurrengo taulan ikusi daitekeen bezala (1. taula), ume guztiek erabiltzen dituzte *artikulu zehaztuak*; jarraian, determinatzaile *zenbatzaileak* eta *posesiboak* datoz; eta azkenik, *zehaztugabeak*. Honekin ikusi daiteke lehen ikasten duten determinatzailea *artikulu zehaztuak* direla eta azkena *artikulu zehaztugabea*.

	Artikulu zehaztua	Zenbatzailea	Posesiboa	Artikulu zehaztugabeak
3 urte	%100 (3/3)	%66,7 (2/3)	%33,3 (1/3)	%33,3 (1/3)
4 urte	%100 (3/3)	%100 (3/3)	%100 (3/3)	%66,7 (2/3)
5 urte	%100 (3/3)	%66,7 (2/3)	%100 (3/3)	%66,7 (2/3)
Guztira	%100 (9/9)	%77,8 (7/9)	%77,8 (7/9)	%55,6 (5/9)

1. taula. Determinatzaile mota ezberdinen erabilera adinen arabera.

Hiru urtekoen datuei erreparatu, *posesiboa* eta zehaztugabea kasu batean bakarrik erabili dute; determinatzaile *zenbatzailea*, aldiz, bi kasutan; eta azkenik, *artikulu zehaztua* hiru urteko ume guztiek erabili dute. Lau urteko umeen emaitzak ikustean, determinatzaile *zehaztugabea* izan ezik, ume guztiek beste hiru motak erabili dituztela ikusi daiteke. Bestalde, bost urtekoek, *artikulu zehaztuak* eta *posesiboak* guztiek erabili dituzte, eta *zenbatzaileak* eta *zehaztugabeak* ume batek izan ezik.

Deklinabideei dagokionez, hurrengo taulan (2. taula), umeek erabili dituzten deklinabide motak agertzen dira, eta gehien erabili direnak *noren/a*, *nora* eta *nolakoa* izan dira; hortaz, esan daiteke lehenengo ikasten duten deklinabide kasuek hauek direla. Bestetik, nabarmentzekoa da 3 urteko umeen artean, kasu gehien erabili dituen umea ama-hizkuntza euskara duena izan dela; bestetik, 4 urtekoen artean, etxean arabieraz egiten duenak ez ditu erabili; eta beste aldetik, arabieraz hitz egiten duen 5 urteko umeak oso kasu gutxi erabili ditu bere adineko beste bi haurrekin alderatuta. Azkenik, kasu gramatikalen erabilerari dagokionez, lehen erabiltzen dena *absolutiboa* dela ikusi da; ondoren, lau urterekin, *datiboa* erabiltzen hasten dira; eta bost urterekin aldiz, *ergatiboa* erabiltzen saiatzen dira baina *absolutiboaren* atzizkia erabiltzen dute.

Noren/a	Nora	Nolakoa	Norekin/ Zerekin	Zerez	Nondik	Non	Nongo	Zertara
%77,8 (7/9)	%66,7 (6/9)	%66,7 (6/9)	%55,6 (5/9)	%55,6 (5/9)	%33,3 (3/9)	%22,2 (2/9)	%22,2 (2/9)	%11,1 (1/9)

2. taula. Deklinabide mota ezberdinen erabilera.

Aditz sintagmari dagokionez, zenbat eta adin gehiago izan, gero eta aditz mota ezberdin erabiltzen dituzte eta, gainera, iragana adierazteko orainaldia erabiltzeari uzten diote. Hiru urtekoek, orainaldia erabiltzen dute gehienbat *nor* aditz motarekin, baina etxeko ama-hizkuntza euskara duen umeak, *nor* eta *nor-nork* orain eta lehen aldian erabiltzen du. Ondoren, 4 urteko umeek, *nor-nori* eta *nor-nori-nork* aditz motak erabiltzen hasi dira eta lehenaldia gero eta gehiago erabili dute, nahiz eta orainaldia oraindik erabili. Azkenik, 5 urtekoek, lehenaldia erabiltzen dute gehienbat, nahiz eta *nor-nori* eta *nor-nori-nork* motatako aditzak oraindik orainaldian erabili. Aurrera egite honek ama-hizkuntza guztietako umeengan ikusten da, baina deigarria dena, arabiera hitz egiten duten umeengan antzenmandako garapena da. 3 urteko umeak ez du hitzik esaten; bestetik, 4 urteko umeak esaldiak esaten ditu baina gehienetan aditz laguntzailea falta zaio; azkenik, 5 urtekoak ez du lehenaldia erabiltzen, eta erabiltzen dituen aditz laguntzaileak orainaldian esaten ditu.

Esaldien konplexutasun mailari dagokionez, oso argia da adinen arteko ezberdintasuna. 3 urteko umeek, hitz solteak esaten dituzte gehienbat, nahiz eta batzuetan esaldi sinple eta konplexuren bat esan. Bestetik, 4 urteko umeek esaldi sinpleak esaten dituzte eta batzuetan esaldi konplexuak erabiltzen dituzte menderagailu eta juntagailuekin. Azkenik, 5 urteko umeek esaldi konplexu asko erabiltzen dituzte juntagailuez eta menderagailuez baliatuz. Gehien erabili dituzten menderagailuak *-ela* eta *-lako* izan dira, baina azken hau erabili beharrean, gaztelaniazko esaldiaren forma erabiltzen dute zergatik hitza esaldi hasieran erabiliz (**Zergatik** ez zen grisa). Bestalde, esaldi konplexuak egiteko juntagailuak erabili dituzte eta horiek *eta* eta *baina* izan dira. Gainera, autonomia gehiagoz kontaktzen duten umeek, esaldiak lotzeko *eta gero* lokailua erabili dute.

Azkenik, autonomiari dagokionez, oso nabaria da 3 urteko umeek helduaren laguntza behar izan dutela ipuina kontatzeko eta heldua galderez baliatu da umeak erantzun ahal izateko. 4 urteko umeek helduaren laguntza behar izan dute, baina erantzutean esaldiak sortu dituzte. Amaitzeko, 5 urteko umeek ia ez dute laguntzarik behar izan, eta haien kabuz kontaktu dute ipuina esaldiak lotuz. Gainera, etxean euskaraz egiten duen umeak, hasieran '*Bazen behin*' eta bukaeran '*Katu katu katu, ipuina zaigu bukatu*' esamoldeak erabili ditu.

5. Ondorioak

Azken atal honetan, gradu amaierako lan honetatik atera diren ondorioak agertuko dira. Jakina denez, ikerketa honen bidez umeen gaitasun komunikatiboa aztertu da eta emaitza batzuk atera dira. Emaitza hauek Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) esaten dutenarekin alderatuko diraa, grabatu diren umeen ekoizpenen ezaugarriak egindako beste ikerketa batzuen datuekin bat datozen ikustekodatuekin bat datozen ikusteko.

Gutierrez eta Ezeizabarrenak (2022) diote bi eratan egin daitezkeela haurren hizkuntzaren garapenari buruzko ikerketak: alde batetik, umeek dakiten ipuin bat kontatzeko eskatzen zaie, baina honek irudiak izan beharko ditu umeek errazago kontaktu ahal izateko; bestetik, esaten dute ume batzuei errazagoa egiten zaiela ipuin berri bat birkontatzea, ezagutzen duten ipuin bat kontatzea baino. Horregatik, hau kontuan izanda, lan honetako ikerketa egiteko bigarren modu hau aukeratu da.

GRAL honen bitartez jasotako datuen analisia egiteko orduan, lau aspektu hartu dira kontuan: izen eta aditz sitagman agertzen diren elementuak, esaldien konplexutasuna eta umeek duten

autonomia. Lehenik eta behin, izen sintagman agertzen diren deklinabide kasuak aztertzen badira, grabaketa hauetan *noren*, *nora* eta *nolako* izan dira gehien erabili diren deklinabide kasuak (Ikusi Taula 2); Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) esaten dute, *non*, *norena* eta *nori* direla ume euskaldunek lehen erabiltzen dituzten deklinabide kasuak. Guk proposatutako egoerak deklinabide kasu jakin batzuen erabilera baino ez ditu ekarriko eta horrek azalduko luke gure emaitzek *noren* kasuaren erabileran baino bat ez egitea.

Honekin batera, izen sintagman erabiltzen diren kasu gramatikalak daude. Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) diote umeek denbora gehiago behar dutela deklinabide kasu hauek erabiltzeko (kasu gramatikalak) esanahi lexikoa (beste deklinabide kasuak) dutenekin alderatuta. Gainera, umeek lehen menderatzen duten kasu gramatikala absolutiboa dela diote; ondoren, datiboa; eta azkenik, ergatiboa. Hau, egin den ikerketan ikusi daiteke. Hiru urteko umeek absolutiboa erabiltzen hasten dira, eta lau urtetik aurrera, datiboa erabiltzen hasten dira, baina oso kasu gutxietan; bestalde, ergatiboa bost urteko umeak erabiltzen saiatzen dira.

Determinatzaileen erabilerari dagokionez, Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) diote haurrek erabiltzen duten lehen determinatzailea artikulua zehaztua dela eta bi urterekin mugatzaileak erabiltzen hasten direla. Bestetik, zenbatzaileak bi-hiru urte artean erabiltzen dituztela esaten dute eta kopuru zehatzak adierazteko determinatzaileak, 4-5 urtera arte ez dituztela erabiltzen *asko*, *gutxi* eta *guztiak* determinatzaileak. Lan honetan ikusi da, berriz, *asko* eta *guztiak* 3 urteko haurrek dagoeneko erabiltzen dituztela.

Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) diote urte erdira arte orainaldiko adizki-formak esaten dituztela eta lau urtera arte oso aditz laguntzaile desberdin gutxi erabiltzen dituztela iragana adierazteko. Ikerketa honetan, ikusi da umeak iragana 4 urterekin erabiltzen hasi direla, eta gainera, aditz laguntzaile gehiago erabiltzen dituztela 3 urteko umeekin alderatuta.

Esaldien konplexutasunari dagokionez, lan honetan egin den ikerketatik atera diren emaitzak oso argiak dira eta ikusi da zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta esaldi konplexuagoak egiten dituztela: 3 urterekin, hitz solteak eta esaldi sinpleak ekoitzi dituzte; 4 urterekin, esaldi sinpleak eta menpeko batzuk; eta 5 urterekin, esaldi konplexuak, gehienbat. Gutierrezek eta Ezeizabarrenaren (2022) lanean esaten da haurrak bi urterekin hasten direla esaldi sinpleak bata bestearen atzetik esaten, loturarik gabe. Kasu honetan, 3 urteko umeen kontaketa galdera-erantzun erara egin da eta, ondorioz, erantzunak hitz batekoak edo esaldi sinpleak

izan dira, nahiz eta euskaraz egiten duen umearen erantzunetan esaldi konplexuren bat ere agertu. Erabili diren menderagailuak *-lako* eta *-ela* izan dira, eta liburuari dagokionez, hiru-lau urtetik aurrera *-la*, *-lako*, *-enean* menderagailuak erabiltzen hasten dira.

Bestalde, kasu batzuetan *Zergatik* edo *'ke'* hitzak erabili dituzte menderagailu bezala, eta hauek erderazko forma hartzen dute menderagailua erabili ordez. Hau, Sagastaren arabera (2003) bere aurrezagutzak erabiltzen dituelako mezuak ekoizteko gertatzen da, horregatik, ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren aztarnak ikusi daitezke hirugarren hizkuntzan mezua ekoizterako orduan.

Azkenik, autonomiari dagokionez, oso nabaria izan da zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta laguntza gutxiago behar izan dutela ipuina kontatzeko. 3 eta 4 urterekin, galdera-erantzun eran kontatu da, nahiz eta 4 urteko umeek laguntza gutxiago behar duten. 5 urteko umeek aldiz, era autonomoan kontatu dute laguntzarik gabe eta esaldiak haien artean kateatzen. Gainera, hasieran eta bukaeran esamoldeak erabili ditu ume batek. Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022) esaten dute haurrek bost urte izan arte helduaren laguntza behar dutela ipuina kontatzeko eta hortik aurrera, autonomiaz kontatzeko gaitasuna erakusten dutela. Horixe da, hain zuzen ere, gure ikerketak erakutsi duena.

Amaitzeko, esan beharra dago horrelako ikerketak oso erabilgarriak izan daitezkeela irakasleontzat. Ikasgelako haurren komunikazio-gaitasuna aztertzeke erabil daitezke, eta, horrela, indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren ikusi; izan ere, askotan, begi hutsez ezin dira antzeman, eta grabatzeko orduan, errazagoa da sakonago aztertzea. Ateratzen diren emaitzen arabera, ahulguneak sendotzen lagunduko duten jarduerak egin daitezke, komunikazio-gaitasuna hobetzeko, kasu honetan euskara lantzeko jarduerak.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Bigas, M. (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Revista Aula de Innovación Educativa*, 46, 1-3 or. <https://ddd.uab.cat/record/183068>
- Bigas, M. (2000). El lenguaje oral en la escuela infantil. In Bigas, M. eta Correig, M. (Eds.), *Didáctica de la lengua en la Educación Infantil* (43-70 or). Síntesis Educación.
- Erriondo, L. (2003). Hizkuntza eta eskola. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 49, 173-177 or. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/49-2003ko-abendua-hezkuntza-mundua-eta-hizkuntza-berreskura/#4200>
- Eustat (2022). Ermua. https://es.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/ermua.html
- Guibourg, I. (2000). El desarrollo de la comunicación. In Bigas, M. eta Correig, M. (Eds.), *Didáctica de la lengua en la Educación Infantil* (13-41 or.). Síntesis Educación.
- Gutierrez, J., eta Ezeizabarrena, M. J. (2022). *Hotsetik hitzera. Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?* Erein.
- Mayor, M. A. (1994). Evaluación del lenguaje oral. *Una guía para la intervención psicopedagógica* (327-422 or.). <https://acortar.link/m92TDc>
- Padilla, G. C., eta Yopez, E. R. (2021). La oralidad y las dimensiones del lenguaje en los infantes. *Revista Cognosis*, 6, 1-22 or. <https://190.15.136.223/index.php/Cognosis/article/view/1973/3307>
- Ruiz Bikandi, U. (2003). Ahozko euskararen lanketa, bereziki bigarren hizkuntza denean. *X. Jardunaldi Pedagogikoak, Ikastolen Elkartea*. <http://amaraberri.org/topics/diadia/arin/ahozla>
- Sagasta, M. P. (2003). Gaitasun eleaniztasuna eta elebakarra alderagarriak al dira? *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 49, 99-109 or. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/49-2003ko-abendua-hezkuntza-mundua-eta-hizkuntza-berreskura/#4200>